

**2003KO MAIATZAREN 8AN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO
BATZARRALDIKO AKTA.**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Zortzia.

HILABETEA: Maiatza.

URTEA: Bi mila eta hirua

HASIERAKO ORDUA: Hemeretziak.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

LEHENDAKARIA: Jon Jauregi Bereziartua jauna

BILDUAK: Patxi Plazaola Muguruza
Ana Isabel Asla Egialde
Jose Antonio Guirado Tristan
Pello Garaialde Goikoetxea
Josi Insausti Mujika
Jon Berbel Aiestaran
Iñaki Andoni Antxia Etxebarria
Miren Arrate Izagirre Iriondo
Leire Lopez Zurutuza
Aimar Larrea Garin

ETORRI GABEAK: Arantza Aseginolaza Azkargorta
Jose Luis Elorza Mugica
M^a Carmen Gomez Mediavilla
Pablo Parra Moreno
Julio Herreros Serna Jorge
Jorge Juan Outeiral Fernandez

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

Alkate jaunak: “PSE-EE-PSOE alderdikoak ez dira etorriko, hauteskundeetarako hautagaien aurkezpena daukate eta. Guk orain arte ez dugu jakin hori. Julio Herreros jaunak berriz, gaur arratsaldean deitu du ezin dela etorri esateko.”

Besterik gabe, batzarraldiari hasiera eman zaio.

1.- ARAU SUBSIDIARIOAK. 18. HArekiko Beasaingo Planeamenduko Arau Subsidiarioen lehenengo aldaketari behin-behineko onespina ematea.

Alkate jaunak, Patxi Plazaola (EAJ/PNV-EA) hirigintza batzorde-buruari eman dio hitza eta honek proposamenaren berri eman du:

“Gaia: 18. HArekiko Beasaingo Planeamenduko Arau Subsidiarioen lehenengo aldaketaren aldaketari behin-behineko onespina ematea.

Udalbatza Osoak 2003ko otsailaren 20an, 18. HArekiko Beasaingo Planeamenduko Arau Subsidiarioen lehenengo aldaketaren aldaketari hasierako onespina eman zion eta espedientea jendeari berri emateko jarri zen hilabeteko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Eguneron eta “Diario Vascon” iragarkiak argitaratuz . Epe horretan ez da inolako alegaziorik aurkeztu.

Horren ondorioz, hirigintza-batzordeak Udalbatzari ondorengo proposamena egiten dio:

Lehenik. 18. HArekiko Beasaingo Planeamenduko Arau Subsidiarioen lehenengo aldaketaren aldaketari behin-behineko onespina ematea.

Bigarren. Gipuzkoako Foru Aldundiari igortzea, hala badagokio, behin betiko onespina eman diezaion .”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa egin da eta aho batez eta aldi berean gehiengo absolutuarekin onartu da proposamena.

2.- XEHETASUN-AZTERLANA. 23. HAKo A lursailari buruzko Xehetasun Azterlanaren aldaketari behin betiko onespina ematea.

Alkate jaunak, Patxi Plazaola (EAJ/PNV-EA) hirigintza batzorde-buruari eman dio hitza eta honek proposamenaren berri eman du:

“Gaia: 23. HAko A lursailari buruzko Xehetasun Azterlanaren aldaketa behin betiko onartzea.

2003ko martxoaren 12ko Alkatetzako Ebazpenaren bidez, hasierako onespena eman zitzaion, “Autobuses Goierrialdea”k sustatutako 23. HAko A lursailari buruzko Xehetasun Azterlanaren aldaketari. Espedientea jendaurrean jarri zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (03-03-20) Eguneron eta "El Diario Vascon" (2003-03-14) iragarkiak argitaratuz eta hamabost eguneko epean ez da alegaziorik aurkeztu. Epe horretan soil-soilik, Gipuzkoako Gutxitu Fisikoen Federazio Koordinatzaileak iradokizuna aurkeztu du zera esanez, Xehetasun Azterlan honetatik ondorioztatuko diren obrek, irisgarritasunarekiko indarrean dagoen legedia bete dezatela.

Horren ondorioz, Hirigintzako Planeamendurako Erregelamenduaren 65., 66. eta 140. artikuluen, Zoru-Gegearen 40. artikuluan, ekainaren 30eko 17/1994 Etxebizitza, Planeamendu eta Hirigintza Kudeaketarako tresnak izapidetzeko premiazko Gegearen 7. artikuluan eta Erregimen Lokaleko Gegearen 21,1j) artikuluen arabera, Udalbatza Osoari ondorengo proposamena egiten zaio: **23. HAko A lursailari buruzko Xehetasun Azterlanaren aldaketari behin betiko onespena ematea.**”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa egin da eta aho batez onartu da proposamena.

3.- HITZARMENA. Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizartekintza Sailaren eta Beasaingo Udalaren artean Eguneko Zentrorako gehienez ere 18 plaza hitzartzeko hitzarmenaren zirriborroa onartzea.

Alkatea jaunak, Ana Asla (EAJ/PNV-EA) Gizarte-ongizate batzorde-buruari hitza eman eta honek ondorengo dio: “Inoiz ez dugu Eguneko Zentroarekin arazorik izan, baina Foru Aldundiarekin hitzarmen bat sinatzea proposatzen dugu, orain arte praktikan egin dena formaltzeko. Beraz, hitzarmen horren edukia onartzea proposatzen da eta Alkate jaunari sinatzeko baimena ematea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, Beasaingo Sozialista Abertzaleak taldekoek, beren jarrera abstentziokoa izango dela esan dute.

Bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 6 (EAJ/PNV-EA)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 4 (Beasaingo Sozialista Abertzaleak)

Horren ondorioz, gehiengo soilarekin ondorengo erabakia hartu da:

“Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizartekintza Sailaren eta Beasaingo Udalaren artean Eguneko Zentrora gehienez ere 18 plaza hitzartzeko hitzarmenaren edukia onartzea.

Alkate jaunari, aipatutako hitzarmena sinatzeko baimena ematea.”

4.- DIRU-LAGUNTZAK. Udaleko tasen arloan laguntzak emateari buruzko proposamen-erabakia.

Ana Asla (EAJ/PNV-EA) andreak gizarte-ongizateko proposamenaren berri eman du:

“Gizarte-ongizate batzordeburuak arloko teknikariekin 2003ko apirilaren 28an egindako bileran, Udaleko tasen arloan laguntzak emateko ordenantza dela eta, ondorengo proposamenak aurkeztea erabaki du:

- Aurtengo eskaerak aurkezteko epea, 2003ko ekainaren 9tik uztailaren 4ra, biak barne, izango da.

- 2002an ur, zabor eta estolderi kontzeptuengatik ordaindutako ordainagiritako kopuruak berreskuratzeko diru-sarreraren baremoa ondorengo izango da:

Hileko 404,72 euro arte, ordainagiriko zenbateko guztia lortzeko.

Hileko 404,73 eurotik 534,01 euro arte, ordainagiriko zenbatekoaren % 75 lortzeko.

Hileko 534,02 eurotik 663,3 euro arte, ordainagiriko zenbatekoaren % 50 lortzeko.

Proposamen hauek Udalbatzak onartzea eskatzen da.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez onartu da proposamena.

5.- GOIEKI:

a- 2002ko memoria, balantzea eta irabazi-galeren kontua nahiz emaitzaren aplikazioari dagokion proposamena aztertu eta onartzea.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, Beasaingo Sozialista Abertzalekoek beren jarrera abstentziokoa izango dela azaldu dute.

Bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 6 (EAJ/PNV-EA)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 4 (Beasaingo Sozialista Abertzaleak)

Horren ondorioz, gehiengo soilarekin onartu dira GOIEKIKO 2002. ekitaldiko Memoria, Balantzea eta Irabazi-galeren kontuak nahiz emaitzaren aplikazioari dagokiona.

b- Batzar Orokorrean ordezkaria izendatzea.

Ondorengoa proposatu da: "GOIERRIKO EKIMENA S.A.ren Batzar Orokorrean parte hartzeko, PATXI PLAZAOLA MUGURUZA, EAJ/PNVko zinegotzia Beasaingo Udalaren ordezkari izendatzea."

Hitz egiteko txanda eman ondoren bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez onartu da proposamena.

6.- BEASAINGO EUSKARA BIZIBERRITZEKO PLAN NAGUSIA: 2003-2005 arteko plan estrategikoa eta 2003ko kudeaketa-plana.

Alkate jaunak, Patxi Plazaola (EAJ/PNV-EA) euskara batzorde-buruari eman dio hitza eta honek proposamenaren berri eman du: "Dakizuenek, Beasaingo Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia hiru urtekoa da eta urtero-urtero kudeaketa-plan bat aurkeztu behar da. Hil honetan aterako du Eusko Jaurlaritzak dirulaguntzen deialdia eta ordurako hau aurkeztu beharra daukagu. Kudeaketa-plan horretan jasotzen da zehatz-mehatz jarduera bakoitzak zenbat suposatzen duen."

"GAIA: Beasaingo EBPN (2003-2005 Plan Estrategikoa eta 2003ko Kudeaketa-plana)

ESKATZAILEA: Udalbatza Osoa

EBPNren Jarraipen-batzordeak prestatu eta landu ondoren, Osagarritasun-aldian Beasaingo gizarte-eragile ugarik egindako iradokizunak jaso, eraturako Aholku-batzordearenak ere txertatu eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak proposaturako egokitzapenak egin ondoren, Euskara-batzordeak

2003-2005 urteetarako Plan Estrategikoa eta 2003ko Kudeaketa-plana aztertu ditu eta 2003ko apirilaren 28an egindako bileran ontzat eman ditu.

Beraz, Udalbatza Osoari aurkezten dizkio, ontzat ematen baditu Osoko Bilkuran onets ditzan. Txosten honekin batera doaz bi dokumentuak.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez ondorengo erabakia hartu da: Aukeztutako EBPNren 2003-2005 urteetarako Plan Estrategikoa eta 2003ko Kudeaketa-plana onartzea.

7.- IKASTAROAK. Musika Eskolako langile batzuek euskarazko ikastaroetara joatea.

Euskara-batzordeak proposatuta, aho batez ondorengo erabakia hartu da:

“XABIER ZELAIA EZENARRO jaunak, Musika Eskolako irakasleak, 2003ko urritik 2004ko urtarrilera (biak barne), dagozkion euskara-ikasketak egiten jarraitzea.”

“JOAN TAPIA ARZALLUS jaunak, Musika Eskolako irakasleak, 2003ko urritik 2004ko urtarrilera, biak barne, dagozkion euskara-ikasketak egiten jarraitzea.”

8.- ESKAERAK ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean honakoak aurkeztu dira:

BANKUAK

Arrate Izagirre (Beasaingo Sozialista Abertzaleak) andreak eskatu du, ibilbideetan zehar bankuak jartzerakoan, hobe dela jende helduarentzat banku altu xamarrak jartzea.

Zerbitzu batzorde-buruak erantzun dio esanez, aldatzen doazen neurrian, saiatzen ari direla xehetasun horiek kontuan izaten.

Eta tratatzeko beste gairik ezean batzarraldia, arratsaldeko zazpiak eta hogeietan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.